

AE

ASTEKO
elkarrizketa

euskara eta aberria

JOSE LUIS ALVAREZ, «TXILLARDEGI»

Era batera edo bestera, azken mendearen bigarren erdian jazo diren gertakari historiko garrantzitsuenen lotua dago bere izena. Euskararen eta aberriaren aldeko militantzia, ordea, aurrekoa zen. Eraberritze-segida da bere bizitza: nazionalismo tradizionalarekin hautsi ondoren, ETAREN fundatzaileetarikoa bat izan zen, euskara batuaren sustatzailea, militante abertzalea, euskal eleberriarren berritzailea, saiakera idazle originala, hizkuntzalari bikaina... baina, guztiaren gainetik, euskaltzalea. Euskararik gabe ez baitago Euskal Herririk.

Testua: **Fermin MUNARRIZ** • Argazkiak: **Jon URBE**

«Euskarak eraman ninduen abertzaletasunera»

Zure gurasoak ez ziren abertzaleak; euskaldunak bai, baina euskara ere ez zenuen beraien-gandik jaso haurtzarora... Bixia da, zeren euskaltzalea eta hizkuntzalari nabarmena eta ETAREN fundatzaileetarikoa bat zara. Nola iritsi zinen euskara eta abertzaletasunera?

Bai, horrela da. Nik txikitatik pentsatu dut euskara nire hizkuntza dela, herriak esaten duen bezala: "euskal" herria (*pueblo del euskara*, literalki, ezta?). Orduan, niretzat ez zen posible Euskal Herria euskararik gabe. Jakina, nik konprenitzen nuen horretarako behar zirela tresna politikoak, behar zela euskal telebista... behar zirela gauzak, gero lortu ditugunak. Garai hartan ez zegoen ezer. Orduan, planteamendu politiko bat egin behar zela esaten nuen. Ni abertzalea naiz, euskara ez dakien jende asko dago hemen, baina horiek ere laguntzaile izango dira borroka honetan eta, horregatik, euskal politikan ere sartu nintzen.

Beraz, euskarak eraman zintuen abertzaletasunera eta ez alderantziz?

Bai, argi dago. euskarak eraman ninduen abertzaletasunera. Nire uestez, euskaltzale batek derrigorrez izan behar du abertzalea, ez baitago soluziorik hori gabe.

Nolabait esatearren, garai hartan aktibismo kulturala militantzia politikoa garatzeko modua zen?

Ikusi behar da nola zegoen euskal mugimendua. PNVkoak ez ziren horrelakoak; desastre bat izan dira euskara kontuetan. Alderdi abertzale batek bultzatu behar du euskara. Horretan Herri Batasunak, eta ETAK ere bai, etsenplu eman dute. ETAK deklarazio guztiak euskaraz egiten ditu. Eta Ezker Abertzalea ere oso mugimendu euskaltzalea da; gaurko buruzagi guztiak euskaltzaleak eta euskaldunak dira, erabat... Eta hori lehen ez zen gertatzen.

Ni gogoratzen naiz behin egon nintzela Javier Landaburu-rekin —orduan erbestean zegoen Eusko Jaurlaritzako lehendakariordea zen— eta galdetzen zidan: «José Luis, no aceptarías tú una Euskadi libre sin euskera?». Eta nik: «¿Pero cómo voy a aceptar una Euskadi sin euskera: eso a mí no me interesa!». Eta besteak: «¿Pero cómo que no te interesa?». «Pues claro que no me interesa. Euskal Herria da euskararen herria!». Berak ez zuen ulertzen. Eta nik pentsatzen nuen: «Landaburu hau non bizi da? Zer mentalitate dauka?». Eta PNVko jende asko horrelakoa zen. Hau desastrea...

Euskararekiko konpromisoak kartzelara eraman zintuen 50eko hamarkadaren hasieran...

Lehenengo aldia 1950. urtean izan zen, uztaillean. Gu estudianten ginen, bazezogen mugimendu txiki bat, EIA zelakoa [Eusko Ikasleen Alkartasuna], eta ni hor nengoen sartuta. Gogoratzen naiz orduan hasi nintzela artikulu txiki batzuk idazten gure aldizkariako. Horiek izan ziren euskaraz egin nituen lehenengo artikulak. Bagenituen bi buletin, bata Gipuzkoan eta bestea Bizkaian. Azken hau, Bizkaikoa, "Ikasle" izenekoa, Benito del Valle eta beste batzuek ateratzen zuten. Gipuzkoakoaren izenaz ez naiz gogoratzen... Buletin txikiak ziren, lau orrialdekoak... Baina nik jada euskaraz egiten nituen artikulak. Noski, hau debekatu zegoen... Francoren garaian, pentsa ezazu... Giro horretan, atxilotu eta espetxeratu ninduten.

Gero, Ekin taldea antolatu zenuen...

Ekin talde hori muntatu zen 1951. urtearen inguruan, eta hortik aurrera hasi ginen ikastaroak ematen —jendeak ez baitzekien ezer—, euskara, historia... Herriz herri joaten ginen hitzaldiak ematen, beti isilpean. Hel-

burua formazioa zen. Euskal Herriari buruzko gaiak ziren batez ere, arazo nazionalari buruzkoak eta... Gero bazeuden ere "cursillos cerrados" deitzen genituenak, eta hauek aurrekoak bukatu ondoren egiten ziren, eta bertan, sekretua mantentzeko, juramentu famatua egiten zen: «Si me detienen, no diré nada» eta abar... Hori hamarkadaren bukaeran zen, oraindik ETA sortu gabe.

Nola iritsi zineten ETA erakundearen sortzeko erabakia hartzera?

PNVkoak gure izenak aieratzen hasi ziren, beraien artean lasai botatzen zituzten izenak eta orduan PNVrekin moztu behar zela argi ikusi genuen, bestela zuloa eramango gintuzten... Ekin bezala, PNVrekin genituen harremanak txarrak ziren. Beraiek «los estados vascos» zituzten ahotan beti, eta orduan Bizkaiko asuntoko Bizkaikoa ziren, Gipuzkoakoak Gipuzkoako asuntokoak ziren... PNVko buruzagiekin harremanak genituen, nik, adibidez, Gipuzku Buru Batzarrak Elias Etxeberriarekin; eta Benito del Valle eta Julien Madariagak, Juan Ajuriagarekin, jada erbestetik etorria zena. Bilerak Donostiako Elkano kaleko kafetegian egiten ziren eta nahikoa ausartak ziren, baina

Ajuriagerra hori ezinezkoa zen. Gutaz ez zuen ezer jakin nahi «Nada, esos fuera.», zioen. Gauzak garbi uzteko ordua iritsi zela pentsatu genuen. Gu ez gara PNVkoak, ez dugu ezer jakin nahi PNVkoekin eta goazen organiazio ezberdina bat sortzera. Eta hori izango zen Euskadi Ta Askatasuna...

Nola eta noiz sortu zen ETA izena? Nork sortu zuen?

Nik atera nuen. Euskaraz besteek baino nik gehiago nekialako. Hasieran pentsatu genuen Aberri Ta Askatasuna izena jartzea, baina siglek ATA ematen zuten eta Bizkaian "ata" [ahate] poto da... Ez zen egokia. Orduan, ATAREN ordez, ETA bota nuen; hitzak konjuntzioaren esanahitik aparte ez zuten besterik.

Izena erabakitzeke bilera Deban izan zen, 1958. urte bukean. Uste dut lau joan ginel: Benito del Valle, Julien Madariaga, Iñaki Larramendi eta laurok Benito, urte asko pasa dira... Horrela izan zela uste dut. Julien Madariagak horrelako esaldi historiko bat esan zuen: «Pronto la sigla ETA será más conocida que la sigla EOKA» (Zipreko alde greziararen alde borrokatzen zen erakundea garai hartan) eta, bai, arrazoiak izan zuten...

Eta gogoratzen duzu izena publikoki plazaratu zen lehenengo aldia?


Leiztazko zen orduan erbesteko Gobernuko buru eta neuk idatzi nion karta bat Parisera [1959an], esanez «hemendik aurrera gu Euskadi Ta Askatasuna gara, guri orain pakea eman; zuek organiazio bat zarete, gu beste bat eta elkar errespetatuz eta moldatzen garene». Orduan arte izan ziren urte batzuk negargarriak...

Hori uztaillean izan zen, San Inazio egunean, eta lehenengo agerpen publikoa izateagatik historialari askok ETAREN sorrera egun gisa hartzen dute...

Bai, uztailaren 31n; eta kasualitate izan zen. Gero jesuitekin zerikusia zuela kontatu da. Ez, kasualitate hutsa izan zen.

Jatorrian, ETA ez zen erakunde armatu gisa sortu. Nola gertatu zen bilakaera hori?

Gure arteko batzuek esaten zuten errealistak izan behar ge-



Donostia 1929. Industria Injeneriaritzan lizentziaduna. **Linguistikan** doktore 18 urterekin euskara ikasten hasi zen. Lehen jarduerak politikoak. 1950ean, lehen aldiz espetxeratu. 1951n **Ekin**-en sustatzaile. 50eko hamarkadan Mitxelena eta Krutwigekin batera, **euskara batua** bultzatu zuen. 1957an lehen **nobela** argitaratu zuen: "Letuniaren egunkari ezkutua". Urte berean, euskaltzain urgazle izendatu. 1959an **ETA**-ren sorreran parte hartu zuen. 1960an berriz atxilotu zuten eta, aske geratu ondoren, **erbeste**an izan zen 16 urtez (Paris, Ipar Euskal Herria, Brusela...). 1965ean, "Huntaz eta hartaz" lehen **saikera** lana argitaratu zuen. **ETA**-ko zuzendaritzarekin desadostasunak zituela eta 1966an "**Branka**" aldizkaria eta korrontea sortu zuen. 1967an, **ETA** utzi zuen. 1977an Donostiara itzuli eta Euskal Sozialisten **Biltzara (ESB)** bultzatu zuen. 1978an, **Herri Batasun**aren sorreran esku hartu zuen. 1979an, Euskal Herrian Euskaraz sustatu zuen. 1989an, Gipuzkoatik **HB**-ko **senatari** hautatua 2001ean, **HB** utzi, eta Aralar-ekin bat egin zuen. 2007an, Aralar utzi eta, 2008an, ANVko zerrendetan Kongresurako hautagai Deustuko Unibertsitateko **irakasle**. UPV-EHUko **katedradun emeritu**; 7 eleberrri, 10 saikera lan eta linguistikari buruzko hainbat **liburu** idatzi ditu, besteak beste. **Pianoa** jotzea du zaletasun eta egunero jotzen du bere Donostiako etxean.

nuela: arazo nazionalak beti bukatzen dira «ostixaka» –Juanjo Etxabek zioen bezala–. Orduan hauxe pentsatu genuen: Etxabek dioen moduan bukatu behar badu kontu honek, goazen adar bat antolatzea, herriaren kontrako biolentziari aurre egingo diona. Orduan, Seigarren

Adarra [adarra: orduko antolakuntza egitura] deitu genuena sortu zen. Aldez aurretik, bost adar kultural zeuden, eta hau seigarrena bilakatu zen. Handik aurrera, bereizi egin ginen gure artean. Julen Madariaga eta besteak joan ziren adar militarera, eta ni eta beste batzuk geratu gi-

nen kultura eta euskararen adarretan. Baina ez zen eszizio bat izan. Gu izan ginen ikastolen bultzatzaileak –nire emaztea ere hor egon zen–, baina denborarekin hori guztia gainditua izan zen, besteak hasi zirenean jendeari erasotzen beste guztia ahaztu egin zen...

Zein ardura zenuen ETArekin barruan? Hastapenetako ideologia izan zirela esan dezakegu? Hasteran... agian ez da oso apala hau esatea, baina nik aste dit baietz. Momentu hartan, beste herrietako mugimenduen erreferentziak bazeuden. Kuban Fidel Castro zegoen... Mugimendu

horiek eragin handia izan zuten gugan. Beste herrietan zer egiten zuten ikusita, borroka armatuaren bidea besterik ez zegoela erakusten ziguten. Orduan Krutwig agertu zen, bere "Vasconia" liburu zalapartatsurekin, eta han planteatzen zuen borroka armatuari buruzko atal oso bat.

«Hemen aurkitzen
nuen nobelan beti
agure bat bere
behiekin ateratzen
zen. Nik ez nuen
horrela sentitzen.
Kaletarra naiz.
Niretzat, mundu
hori ez zen nire
mundua»

«Oso baikorra naiz.
Segun eta nola
jokatzen dugun,
abileziarekin
jokatzen badugu,
oso momentu ona
da. Nik uste dut hau
dela, aspaldidanik,
momentu
hoberena»

1960an, bigarren atxiloketa eta denboraldi bat kartzelan...

Bai, zorte txarra izan nuen. Zumalakarrigi kalean bizi nintzen eta badaezpada soka bat neukan prest etxetik hanka egiteko -atzetik, garajearen gainetik-, baina Polizia etxera sartu zen eta ez nuen ezertarako denborarik izan: «*Ahora sí que me han jodido*». Harrapatu ninduten eta kartzelara joan nintzen. Hori 1960ko abuztuaren izan zen. Hilabete batzuk eman nituen barruan. Eta gero, erbestera...

1961. urtean, Ipar Euskal Herrian ETArekin lehen erbesterratu publikoa izan zinen. Zer nolako harrera izan zenuen? Nolako izan zen Hegoaldetik ihes egin zuten errefuxiatuen etorrera?

Ni Iparraldera iritsi nintzenean ihes egindako PNVko batzuk baizeuden jada. Gu komunistak ginela esaten zuten. Ez naiz ondo gogoratzen baina, seguru asko, harrera txarra izango zen. Hango jendea oso eskuindarra da. Ni joan ondoren, jende asko hasi zen Iparraldera ihes egiten. Ordurako, bagenituen harremanak. Enbataren lehenengo bilera batzuk nire etxean, Donostian, egin ziren. Ximun Haran, Jakes Abeerri, Jean Louis Davant... ezagutzen nituen ordurako. Harremanak mantendu egin genituen; gero batzuk desmarkatu ziren. Abeerri oso gure aldekoa zen eta beti egon da bestaldetik zetozenen zerbitzura. Eta hori PNVkoek ez zuten onartzen...

Denbora luzea eman zenuen erbestean: Parisen, Iparraldean, Bruselan... Nolakoak izan ziren 16 urte horiek?

Maila pertsonalean, onak. Bruselan azpitik sartua nintzen... Han Poliziak atxilotu egin ninduen eta, interrogatu ondoren, kalean utzi ninduten. «Libratu naiz», pentsatu nuen. Lehenbizi Bruselan egon nintzen, eta gero Waterloo... ETAn erabakita zegoen muga pasatzeko gero, jada automatikoki gaitzen zirela kargu guztiak; eta muga pasa ondoren geratu nintzen militante soil bezala. Pentsatzen genuen bestela PNVkoek gertatu zitzaizena gertatuko zitzaigula: urteak eta urteak karguan eta jendearekin eta gertatzen zenaren kontrola galduta bukatuko genuela.

Horregatik ez zinen joan ETArekin V. Asanbladara (1966-67an)? Bosgarren Asanbladara joatera ez nintzen ausartu; oso fitxatua nengoan.

Noiz eta zergatik utzi zenuen ETA?

1967an utzi nuen ETA. Deklarazio bat, karta bat, egin nuen. Askatasun politikoa ados ginen, baina momentu hartan Alderdi Komunista bat egiteko tentazio handia zegoen. Eta PNVkoak ere ari ziren... PCEn intrusismoa... Niretzat jende horrekin biltzea oso arriskutsua zen, bestela denok joango ginen zulora.

Garai hartan -eta gerora zure bizitzan ere-, lerro dogmatikoen aurka agertu zinen. Sozialismo erradikala baina diktadurarik gabekoa, demokratikoa, autogestionatua... proposatzen zenuen. Planteamendu horiek aurkako jarrera asko eragin al dizkizute?

Momentu horretan ETAn agintzen zutenak ez zeuden linea horretan. Nik uste dut PCEn alde mugitzeak zirela, eta nik esaten nuen PCekin joanez gero, ez genuela ezer onik aterako. Esan dezagun gero denborak arrazoia eman didala. SESBean Mikhail Gorbaxov etorri zenean, ikusi zen hura diktadura izugarria izan zela ordura arte. HBko senadorea nintzenean hara joan nintzen eta ikusi nuen Gorbaxov bera autoritate harrigarri batekin estalinismoaren deuntzia izugarria egiten. «*Joder, este es nuestro hombre*», pentsatu nuen. Nik Gorbaxov beti miretsi izan dut. Gogorra izan zen egoera; aparatuz guztia estalinista zen eta tipoa ausartu egin zen aldatzera. Oso ausarta izan zen.

50eko hamarkadan Krutwig eta Mitxelenaekin lanean aritu zinen euskara bateratuaren garapenean, baina ikuspegi ezberdinetik... Tirabirak ere izan ziren zenuen artean... Nolako izan zen euskara batuaaren planteamendua?


Hasieratik bi planteamendu izan ziren. Batetik, Krutwigena zegoen; bera erdi alemana zen eta Luteroren erredua zeukan buruan. Zer egin zuen Luterok? «Testamentu Berria» aleman berriaz jarri, ez baitzegoen orain-

«Euskaltzale batek derrigorrez izan behar du abertzalea, ez baitago soluziorik hori gabe»

«Hasieran pentsatu genuen Aberri Ta Askatasuna izena jartzea, baina siglela ATA ematen zuten eta Bizkaian "ata" [ahate] pato da... Ez zen egokia. Orduan, ATArekin ordez, ETA bota nuen»

«[Leizaolari:]
"Hemendik aurrera
gu Euskadi Ta
Askatasuna gara,
guri orain pakea
eman; zuek
organizazio bat
zarete, gu beste bat
eta elkar
errespetatuz ea
moldatzen garen"»

«Ni Iparraldera iritsi nintzenean ihes egindako PNVko batzuk baizeuden jada. Gu komunistak ginela esaten zuten»



dik aleman batua, eta bide hori egitea proposatzen zuen Krutwigek: Leizarragaren «Biblia» hartu, Leizarragaren euskara hartu, eta hori euskara batua bihurtu. Baina guztiz arkaikoa zen...

Hori zen Krutwiggen ikuspuntua. Zein zen zurea?

Nire planteamendua Mitxelena esaten zuena egitea zen: hemen, arrazoi biologikoengatik ere, gazteek dute etorkizuna, ez zaharrek. Orduan, zaharrak beren bizkaitakeria zentzuarekin zeuden; PNV zen garai hartan oso muturreko bizkaitera erabiltzen zuena, eta guk esan genuen hemen gauza zentral bat egin behar zela. Mitxelena posizio horretan zegoen. Eta Mitxelena- ren alde jarri ginen. Ni pertsonaiki ere bai. Harreman estua izan nuen Koldo Mitxelenaekin. Azkenean, hau inposatu egin zen. Mitxelena zekien euskarari buruz gu guztiok baina mila aldiz gehiago. Euskarak eman duen jakintsurik handiena Mitxelena izan da. Horretan, nik txapela kentzen dut. Ez dago dudarik. Ehun urtetik behin ateratzen da horrelako bat.


Nola ikusi duzu euskararen bilakaera ordur gozotik?

Ondo. Askotan esan digute [Alison] Mackey eta horrelako soziolinguista batzuek - hemen ikusi duzu, horrelako berreskurapen bat hizkuntza nahiko galduta zegoen momentutik, hori harrigarria dela, uste genuen baino arrakasta handiagoa izan duela. Nik ez nuen uste horrenbeste- rainokoa izango zenik. Euskaltzaleek behar zuten horrelako arma bat eta hori egin zen oso azkar. European beste edozein lekutan baino azkarrago joan da. Eta jendeak gero segitu egin du. PNVkoek ez. PNV beti erretaguardian egon da, politikan, linguistiketan eta denean...

Zein bitarteko beharko liriteke etorkizunean euskararen bizi- rapena bermatzeko? Estatu bat behar da...

Betidanik defendatu duzu fronte abertzalea. Gaur egongo abertzaleen arteko akordioak norabide horretan doaz?

Nik uste dut baietz. Hor daude Ezker Abertzalea, EA, Aralar... PNV ez dago ildo horretan. Urkulluk argi eta garbi esaten du ez dela errealista autodeterminazioaz pentsatzea; beraz, pentsatzen dute beste estatutu bat



-lehengoa baino hobea- behar dela. Espainia markoan eta abar.

EAJk subiranotasunaren aldeko norabidea inoiz hartuko al du?
Ez dakit, baina uste dut hori jada aspaldiko kontua dela... Abertzale eta independentista bezala, nik ez dut esperantza handirik.

Eta abertzale bezala, momentu honetan baikorra zara?
Bai, oso baikorra naiz. Segun eta nola jokatzen dugun, abileziarekin jokatzen badugu, oso momentu ona da. Nik uste dut hau dela, aspaldidanik, momentu hobereana.

Militantzia kulturala eta politikoa hasi zenuenetik gaur egun arte, zertan aldatu da euskal gizartea?
Jendea orain askoz ermaiago dago, informazio gehiago du... Gure garaian, Francoren garaian, oso zaila zen informazioa lortzea, baina momentu honetan gazteek badute informazio ona; prentsa hor dago, askotan artikulak onak agertzen dira... Gutxi gorabehera, gazteek badakite ere nolakoa izan den historia eta, oro har, askoz animatuago daude aurrera jotzeko. Nik uste dut hobera aldatu dela gizartea.

«Ez naiz euskaltzain oso arrazoi zaharregatik eta politika arrazoiengatik»

1957tik euskaltzain urgazle zara. Baina inoiz ez zara euskaltzain osoaren eserlekuan eseri, erakunde horretako «ardi beltza» zarelako, behin baino gehiagotan esan duzun bezala... 2004an ez zenuen onartu ohorezko euskaltzain izatea. Zer gertatu da? Zergatik ez zara euskaltzain oso?
Oso laguna nuen Henrike Knorr, eta berak Gasteizen esan zidan behin: «Hik ez baduk aldatzen borroka armatuari buruz eta ETari buruz daukaken jarrera, ez haute sekula euskaltzain oso izendatuko». Hori horrela izan da eta horrela gertatu da. Orain dela gutxi, [Euskaltzaindiko lehendakari] Andres Urrutiak bere borondaterik onenarekin eta pentsatuta jada euskaltzain oso ez nintzela izango, gutxienez ohorezko euskaltzain izatea proposatu zuen. Eta nik esan nuen ezetz. Nire ustez, ni ez naiz euskaltzain oso arrazoi zaharregatik eta politika arrazoiengatik, dudarik gabe. Bai, ardi beltza izan naiz...

Eta «ardi beltza» izan al zara zure bizitzako beste esparru batzuetan ere?
Bai, nik uste dut baietz. Alde batetik, marxismo-leninismoa modan zegoen

denbora haietan. Jean Paul Sartre eta Bertrand Russel izan dira nire aitapontekoak. Russel-en "Pratique et theorie du Bolchevisme" irakurri nuen eta han kontatzen zuen berak uste zuela herri sozialista bat ikustera joan zela eta, horren ordez, «un enorme collège de jésuites» (jesuiten eskola handi bat) aurkitu zuela, alde guztietatik debekua besterik ez zegoen eta. Handik itzuli zen guztiz etsita. Sartre ere, era berean, beti ezkerrean egon nahi, baina PCrekin konforme ez.

Nola iritsi zinen literatura? Zerk bultzatu zintuen lehenengo eleberririk hura, «Leturiaren egunkari ezkutua», idaztera?
Koldo Mitxelena bultzatu ninduen. Ferrolera joan behar nuen -garai hartan. Ferrol del Caudillo-, afferez bezala soldaduska egitera. Sei hilabete pasa nituen bertan. Hara joateko nintzenezan. Koldo Mitxelena esan zidan: «Zuk ez duzu "Pan" itzuli behar -Knut Hammsun-en obra bat zen eta itzulpenarekin hasia nintzen ordurako- utzi hori alde batera eta asma ezazu zerbait zeure buruz». Artilleriako bateria batean nengoan Ferrolen eta hiru

astetatik bi libre neuzkan. Baterian pasatzen nuen aste horretan, bakarrik egoten nintzenez, huraxe zela idazteko momentua pentsatu nuen. Eta hantxe, Ferrolgo bateria batean, idatzi nuen "Leturiaren egunkari ezkutua".

Eleberririk honetako nobelagintzan aldaketa sakona ekarri zuen, oso berritzailea izan zen...
Ez nuen asmo berezi batekin egin. Orduan irakurtzen nituen liburuen arabera, bada, horrelako zerbait egin beharko nukeela pentsatu nuen. Buruan nuena idatzi nuen. Noski, orduan irakurritako autoreak izango nituen bueltaka, Kafka eta horrelako beste asko... Askok irakurtzen zuten garai hartan.

Euskal nobelagintza kanpoko moldeetara egokitu behar zela sentitu zenuen?
Bai... baita ere. Hemen aurkitzen nuen nobelak beti agure bat bere behiakin ateratzen zen. Nik ez nuen horrela sentitzen. Kaletarra naiz. Niretzat, mundu hori ez zen nire mundua, ez nuen ezagutzen barrutik. Ezagutzen genuena mundu urbanoa zen. Beraz, gauza urbano bat egin nuen, kaletarra.